

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Ostirala, 2011ko urtarrilaren 14a. VIII. urtea. 2.158. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Infozazpi irratiairen aldeko jaia antolatu dute bihar Trianguloa plazan

Goiz pasa 10:30ean hasiko da Tolosako dultzaineroen eskutik; 11:00etan irratsaioa zuzenean egingo dute eskualdeko hainbat pertsonaien laguntzarekin

Tolosaldean antena berria jarri dute eta horri esker Infozazpi irratia eskualdean FM 97.7an entzun daiteke; mantenurako herri ekimenak antolatu dituzte **02**



Igande arratsaldeetan igerilekua zabalik egongo da Tolosako Usabal kiroldegian. A. IMAZ

Igande arratsaldeetan ere Usabal zabalik

Tolosako udal ordezkariak azaldu dutenez, apirila bitarte kiroldegia igandeetan egun osoan egongo da zabalik, froga moduan **02**

ELA eta LAB sindikatuek langileak 27ko grebara deitu dituzte

Euskal gehiengo sindikalak deitu duen mobilizazio egunean, Espainiako gobernuaren pentsio erreformaren aurka egingo dute **07**

Alegiako haurreskola berriak atak zabandu ditu

Kirol eta kultur etxearen eraikinean aurkitzen da; hilaren 3an hasi ziren zerbitzua eskaintzen eta egun, 0-2 urte arteko hamahiru haur joaten dira bertara **04**

Tolosako Trianguloa plazatik egingo dute irratsaioa Infozazpiko esatariek, bihar 11:00etatik aurrera. Goiz pasa ordea, eguzkia irtetearekin batera hasiko da.

Infozazpi irrataria jada eskualdean da

Asier Imaz Komunikabideak

Infozazpi irratiak bost urte beteko ditu hilaren 27an. «Tolosaldeko herritarrek egindako lanari esker», Infozazpi entzungai da eskualdean, FM 97.7an. Guzti hau ospatzeko, bihar, hilak 15, goiz pasa antolatuko dute Tolosako Trianguloa plazan.

Egitarau oparo baten baitan, 11:00etatik 13:00etara, irratsaioa zuzenean egingo dute Trianguloatik, eskualdeko hainbat pertsonaren parte-hartzearekin.

10:30etik aurrerako jaia

Tolosako dultzaineroak kalera 10:30ean irtengo dira larunbatean, ospakizunei hasiera emateko. Hala eta guztiz ere, eguzkia atera aurretik, Euskal Txerriaren inguruko erakusketa prestatzen hasiko dira abeltzainak. Trianguloa plazan goizean goiz txerria erreko dute, ondoren pintxoak banatzeko.

Zuzeneko irratsaioa 11:00etan hasiko da. Bertan, besteak beste, LABeko Mari Mujika; Etxerateko Pepi Gorostidi; Asier Izagirre

men dizalea; Amaia Doyague arraunlaria eta Adunako eta Anoetako alkateak egongo dira, azken hauek AHTaren inguruan ariko dira hizketan.

Infozazpi irratiaren aldeko jaia, 13:00ak inguruan amaituko da.

'Geroz eta gehiago'

Eider Elduainen tolosarra Infozazpiko esataria da. Unai Iraola alegiarrak aldiz, irratiaren alde lanean ari den herritarra. Biek eskualde guztia gonbidatu dute Tolosako Trianguloa plazara.

Elduainen esanetan, «Infozazpi irrati oraindik jende askok ez daki existitzen denik ere». Ondorioz, «larunbateko ospakizunaren helburuetako bat hori izango da; jada eskualdean irrati entzuteko aukera badela zabaltea». Aurrera begira, «seinalea Euskal Herrian ahalik eta toki gehienetara zabaldu nahi da, bai internet bidez eta baita uhinen bidez ere» dio esatari tolosarrak.

Unai Iraolak bere aldetik, argi dauka irratiaren aldeko herri ekimen lana zein den: «Eurek nahikoa lan dutenez irratsaioekin, es-



Unai Iraola, irratiaren aldeko herri ekimeneko kidea da. Eider Elduainen, Infozazpiko esataria da. A. IMAZ

kualdez eskualde irratiaren berri zabalteko lan hori herri ekimen bidez egitea egokia zela ikusi zen. Horrez gain, uhinen bidez Tolosaldean orain hasi da emititzen Infozazpi. Batez ere antena berria jarri delako izan da hori. Antena horrek sortzen dituen mantenu lanak eta hauen kostuak oztopo izan ez daitezten ari gara lanean».

Irrati honek zein berezitasun duen galdetu ostean, aniztasunaren beharra aipatu dute: «Nola-bait Infozazpi kolore pixka bat ematera datorrela iruditzen zaigu».

«Azkenean, euskal jendartea anitza da, eta komunikabideak ere horrelaxe izan beharko lukete. Baina gaur egun, izugarrizko hutsunea dagoela ikusten da, aniztasun hori ez da islatzen bertako komunikabideetan. Gure ustez, hutsune horri ekarpen bat egin diezaiogegu. Are gehiago,

Euskal Herrian bizi diren aldaketa garai hauetan. Infozazpi bezalako ahots batek bere indarra eta bere ekarpena izan behar duela uste dugu».

Bide horretan, urratsez urrats handituz eta zabalduz joan nahi dute. Horregatik jarri diote biharko ospakizunari *Geroz eta gehiago* goiburua.

Baina nola sustengatzen da proiektu hau? Edo beste era batera esanda: Nola lagun daiteke Infozazpi? «Ezinbestekoa da bazkide kopurua handitzea. Gaur egun, 1900 herritarrek osatzen dute sare hori, hilean 7 euro ordainduz. Hori da irratiaren oinarri ekonomikoa, oinarri herritarra. Bazkide egiteko berriz, bi aukera daude: Bata, *info7.com* helbidean eta bestea, harpidedun fitxa betez. Horretarako aukera Tolosan bihar egongo da, banatuko diren esku orriak betez».

↓ Egitaraua

BIHAR, TRIANGULOAN

■ **10:30ean.** Tolosako dultzaineroek, eskualdeko bertsoariak eta musika jartzaileek girotuko dute goiza.

■ **Goizean.** Euskal Txerri arrazaren erakusketa eta dastatzea. Goizaldean, txerria erreko dute Trianguloa plazan, ondoren pintxoak banatzeko. Horrez gain, Euskal Txerriaren erakusketa izango da: zerrama bere txerrikumeekin. Euskal Txerriaren urdaiazkioa ere zozketatuko da gerturatzen direnen artean.

■ **11:00etan.** Infozazpiren zuzeneko irratsaioa Trianguloa plazatik. 13:00ak bitarte, eskualdeko hainbat eragile eta norbanako elkarrizketatuko dituzte bertan.

Usabal kiroldegia «aisialdi-eredu berrien neurria»

Datorren asteburutik aurrera, Usabal kiroldegia igande arratsaldetan ere zabalik izango da

Itzea Urkizu

Kirolak

Bost urte beteko dira Usabal kiroldegia zabaldu zenez geroztik, eta horren harira hainbat ekintza antolatuko dituzte. Besteak beste, kiroldegiko ordutegiaren zabaltea izango da aurtengo berrikuntzetako bat. «Partaidetzan eta bazkideetan oinarrituriko erabakia» izan da, igande arratsaldetan Usabal irekita egon dadin hainbat eskaera jaso baitituzte azken hilabeteotan.

Jokin Bildarratz alkateak jakinarazi duenez, behin-behineko esperientzia moduan proposatu dute ordutegi-aldaketa hau, eta hilaren 16an hasita Aste Santua bitartean iraungo du. Denbora tarte honen ondoren, erabiltzaileen erantzuna ebaluatuko dute.

Ordutegiari dagokionez,

09:00etatik 20:00etara bitartean zabalik izango da Usabal igandetan, eta sartzeko moduak orain artekoak izango dira.

Aisialdi-eredu berriak

«Jendearen beharrak desberdinak dira eta behar horiei erantzuteko sortu da planteamendu berri hau», dio Bildarratzek. Beraz, berrikuntza hau, batez ere astean zehar Usabalera joateko zailtasunak dituztenen, familiei eta gazteenei zuzenduta burutu dute. Garaiekin batera aisialdi-ereduak ere aldatuz doaz, eta «gero eta gehiago dira aisialdia modu osasuntsuan bete nahi dutenak».

Ekimen berri honetan kiroldegiko jatetxearen laguntza ere izango dute, batez ere familiei begirako aisialdi ekintzetan. Modu honetara, eguna Usabalen pasa-



Usabal igande arratsaldetan ere zabalik egongo da. A. IMAZ

tzeko aukera berriak sortuko direla dio Oscar Renedo zinegotziak.

Arduradunek, bestalde, jakinarazi nahi izan dute ordutegi berria SMSz, posta elektronikoz edo

eskutitzez helaraziko zaiela bazkideei. Gainera, bazkideen helbide elektronikoko zein telefonoak biltzeko kanpaina martxan jarri dute, hemendik aurrerako berriak bide horietatik zabalteko.

Iriarte
Goza ezazu neguko menu eta berrikumeaz

T. 945 685 078

↓ **Kirol jarduera****URTARRILAK 14, GAUR****Areto futbola.**

■ 1.go eta 2.go maila, Usabalen, 20:30: Laskorain - Donibane; Laskorain - Plaza Berri.

URTARRILAK 15, BIHAR**Areto futbola.**

■ Neskak, Usabalen, 18:00etan: Laskorain - Alegia.

Es kubaloia.

■ Infantilak, Usabalen, 11:00etan: Tolosa - Leizaran.

■ Kadeteak, Usabalen, 12:30ean: Tolosa - Usurbil.

■ Seniorrak, Usabalen, 16:00etan: Tolosa - Elgoibar.

■ Futbolak, Usabalen, 09:30ean: Tolosa CF - Allerru.

■ Infantilak, Usabalen, 11:00etan: Tolosa - Anaitasuna.

■ Infantil txikiak, Usabalen, 12:30ean: Tolosa CF - Sanse.

■ Eregional oho. maila, Berazubi, 16:30: Tolosa CF - Zumaiako.

Igeriketa.

■ Pako Sanchez Igeriketa Proba, Usabalen, 09:00-13:00.

■ Hegats igeriketa, Usabalen, 15:00etatik 19:00etara.

Saskibaloia.

■ Infantil mutilak, Usabalen, 09:00etan Take Aldaba - Ordizia; 10:30ean: Take Oria - Easo.

■ Kadete eta junior mutilak, Usabalen, 12:00: Take Tovar - Hernani; Take Tolosa - Ganbara.

■ Senior mutilak, Usabal, 16:00: Take Orbela - Internacional.

■ Seniorrak, Usabalen, 18:00: Bide Bide Ibiza - Viajes Marfil.

URTARRILAK 16, ETZI**Futbola.**

■ Usabalen, alebinak, 11:00etan, Tolosa CF - Kostkas.

■ Berazubin, jubenilak, 16:30ean, Tolosa CF - Indartsu.

Gorka Urbizu o Berri Txarrak taldeko abeslaria eta gitarra

Berri Txarrak taldeak kontzertua emango du gaur, Bonberenean, 22:30etik aurrera; 'Payola' euren lan berriko nahiz aurreko diskoetako abestiekin osatuko dute zuzeneko.

«Tolosaldea beti izan da leku fetitxe bat Berri Txarrak taldearentzat»**Iñigo Terradillos** Musika

Berri Txarrak taldearen musikak hartuko du Bonberenea gaur gauean. Payola Tour biraren barruan egingo duten geldialdi-tako bat da Tolosakoa. Arrakastaz eta ikusminaz beterik dator, izan ere, kontzertuko eguna baino aste bete lehenago sarrera guztiak salduak zeuden. Gorka Urbizu taldeko abeslariak dioenez, Tolosaldean zale ugari izan dituzte betidanik.

Eskualdean bigarren kontzertua emango duzue denbora tarte txikian. Hala ere, sarrerarik gabe jende ugari geratu da.

2010a ez da urte erraza izan taldean izan ditugun aldaketengatik, horregatik oso pozik gaude, jendea oso ondo ari delako erantzuten. Tolosaldearen kasuan, beti izan da leku fetitxe bat Berri Txarrakentzat. Adibidez, gogoan dut maketa ugari saltzen zirela Tolosaldeko gaztetxe eta tabernetan. Beti izan dugu harrera oso ona.

Arrakasta horren sekretua zein dela esango zenuke?

Kantuak direla pentsatu nahi dut. Jendea gustatzen zaion edo jendearengan sortarazten duen zerbait dute abestiek. Abesti horiek lortzeko sekreturik ere ez dago. Guk barnetik iriteten zaiguna egiten dugu, gustuko dugun musika eginez, eta zortea dugu jendea gure musikaren zain izate



Galder Izagirre, Gorka Urbizu eta David Gonzalez taldeko kideak. HITZA

ten dela. Hori sekulako pribilegioa da.

Bonberenea ederki ezagutzen duzue, maiz izan baitzarete bertan.

Jai. Musika. Hil diskoa aurkeztu izan ginen Bonberenean azkenez. Beraz, duela ia bost urte. Tarte honetan izan gara gehiagotan, *Min hau* edota Laboaren omenezko abestia grabatzen. Lagun onak ditugu bertan.

Nolako izango da gaurko zuzeneko?

Bira honetako bideari jarraituz, *Payola* azken disko kantuak izango dira nagusi zuzenekoan, baina, horrez gain, denetarik izango da. Gogotsu gaude gaurko emanaldirako.

Taldean izandako aldaketak aipatu dituzu. Aldaketa handiak, denbora gutxian bi kide berri baitituzue.

Azken urteak mugituegiak izan dira talde barruan eman diren aldaketei dagokienez. Beti izaten da zaila taldekideen aldaketa, batez ere gure kasuan. Izan ere, Berri Txarrak bere lehendabiziko 14 urtetan kide berak mantendu dira. Galder Izagirre bateri-jotzailak, esaterako, dagoeneko 25 kontzertu inguru eman ditu, eta oso erraz egokitu da. Laboaren omenezko kanta eta Herri Urratsen abestia grabatzeko estudioan izan gara, eta horrela pixkanaka elkar ezagutzeko aukera izan dugu. Oso giro ona dugu taldean,

eta hirukote ona osatzen dugula esango nuke.

Bi abesti horietarako estudioan sartu zarete. Disko berria egiteko sartuko al zarete aurten?

Disko berri bat grabatzeko asmoa dugu. Urte amaieran edo uda ondoren lan berria argitaratu nahi dugu. Hori bai, oraindik ez dugu kanturik, denborarik ez baitugu izan kontzertuengatik, baina Herri Urratsarako abestia grabatzen dugunean kantuak idazten jarriko gara.

Aurtengo Herri Urratsarako abestia ere ari zarete egiten, beraz.

Elkarren estudioetan ari gara grabatzen une honetan. Sustrai Colinak egin ditu testuak eta guk geure burua aurkeztu genuen abestia egiteko. Gustura ari gara, eta jendea gustatzea espero dugu.

Asian izan berri zarete, eta orain Ameriketara zoazte. Atzerriko zaleetatik zer jasotzen duzue?

Oso desberdina da, hemen dugun oihartzunik ez baitugu kanpoan izaten. Horregatik, bidea irekitzen joan behar duzu. Abentura hori asko baloratzen dugu. Hemen zortea dugu jende asko izateko, eta horrela pixkanaka oso esker onekoak baitira. 16-17 urte musika egiten daramatzan talde batentzat garrantzitsua da ezagutzen ez zaituzten lekuetan jotzea bezalako erronkak izatea.

Hilberriak**ESKELAK**

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

**AMAIA ZAMARRIPA IMAZ**
andrea

Atzo hil zen, 61 urte zituela

Urte luzeak elkarrekin egin ondoren, beti izango zara gurekin.

Lizardiako lagunak

Tolosan, 2011ko urtarrilaren 14a



Lizardi elkarteko lagun juntakideak bere lehendakari Amala Zamarripa Imazi:

Amala, unerik zallanetan, beti tinko, aldamenen izan zaitugunari, ez adiorik, egun handirarte baizik.



Tolosan, 2011ko urtarrilaren 14a

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pentsatzen dugu pertsona bakartzak bere neurrako fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenez, aukera ekonomiko gutxieta egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA EHDORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Haurreskola berria martxan dago kirol eta kultur etxean

Hilaren 3an ireki zituen ateak; udalak 150.000 euroko inbertsio egin du haurreskola eta gimnasioa egokitzeko

Imanol Garcia Alegia

Alegiako haurreskola berriak ireki ditu ateak kirol eta kultur etxearen eraikinean. Lehen gimnasioa zegoen lekuan dago. Aitor Sarasola alkatea «oso gustura» agertu da haurreskola berriarekin eta bere erosotasuna nabarmendu du: «Zoru erradiatzailea du. Lurra goxo egoteaz gain, beregailurik ez dago haurren eskura. Bestalde, aire egokitua ere badago».

Haurreskolak 150 metro karra-tu inguru ditu. Bi gela handi daude, bakoitza lotarako bere gelatxoarekin eta komunarekin. Sukaldea ere badago eta hezitzaileentzako bulegoa. Haurreskolaren kanpoaldean aurki-patua egokitzeko dute.

Sarasolak gogoratzen duenez, «orain zortzi urte lehenasuna zen haurreskola izatea herrian. Alegiak duen leku faltagatik, Franconin zentratu ginen proiektua gauzatzeko. Ez zen ezer ere lortu eta beste aukerak ez ziren aurreikusi». Aurtengo legegaldian ikusi zuten «ezin zela gehiago luzatu eta beste irtenbide bat eman behar geniola». Kirol eta kultur etxea handitzearen aukera ikusi zuen udalak. «Nola luze joango zen, ikusi genuen behin behineko haurreskola jartzea Kalebeheran eta berriaren proiektua gauzatzaren hasi ginen», dio Sarasolak.

Kirol eta kirol etxearen eraikina handitu ondoren, gimnasioa lekuz aldatu zen eta gimnasioa zegoen lekuan egin da haurreskola. Bi espazioen gainean tarteko solairua egin da. Espazio horrek aukera handia ematen du, baina oraindik ez dute zehaztu zertarako bideratuko den.

Kultur eta kirol etxearen zabal-tzea 180.000 euro inguru kostatu da eta Madrilék emandako diruarekin burutu da. Haurreskola eta gimnasioa egokitzea 150.000 euro izan dira eta udalak egindako inbertsioa izan da. Udalaren eskuduntza haurreskolaren manteni-mendua eta garbiketa da. Kudea-



Egun haurreskolako gela batean daude haur guztiak. I. GARCIA



Haurrek gela bakoitzaren ondoan lo egiteko gelatxoak dute. I. GARCIA



Haurreskola berriaren txoko batean zenbait haur jolasean. I. GARCIA

keta, hau da, hezitzaileen kontratazioa eta haurren matrikulazioa, Partzuergoak ematen du.

Egun 13 haur

Urtarrilaren 3tik martxan dago zerbitzua. Guztira 21 haurrentzako lekua dago, zortzi plaza 0-1 urte bitartekoentzat eta 13 plaza 1-2 urte bitartekoentzat. Ikasturtea

bederatzi haurrekin hasi zuten eta urtarrean beste lau hasi dira eta hauek egokitzapenean daude. Egun daudenetik bederatzi dira 1-2 urte artekoak eta lau 0-1 urte artekoak. Urtarrilaren 17tik 28ra zabalduko da matrikula e giteko aukera.

Haurrak oraingoz gela batean daude, baina matrikulazio kanpainaren ondoren bi gelak erabiltzen hasiko direla zehaztu du Esti Saralegi haurreskola koordinatzaileak. Egun bi hezitzaile daude eta datorren astetik aurrera beste bat hasiko da, lanaldi erdian. Behin behineko harraskolatik oraingo berrira «aldaketa ikaragarria» izan dela dio Saralegik.



Willis Drummond eta Bronze taldeak kontzertu batean. HITZA

Willis Drummond eta Bronze taldeen kontzertua Gaztetxean

Erredakzioa Alegia

Alegiako Gaztetxeak urteurreneko ekitaldiei amaiera emango die gaur gauean kontzertu batekin. 22:30ak aldera hasiko da eta bertan joko dute Willis Drummond eta Bronze taldeek. Willis Drummond Baionan sortutako rock taldea da. 2007an, beraiek ekoizturiko *Anthology* diskoa kaleratu zuten. Bidehuts zigiluarekin disko berria kaleratu zuten 2009an, *Wi-*

llis Drummond. Hirugarren diska sortzen ari dira, *Instanteak* izenokoa, eta hil honen amaieran argitaratzea espero dute.

Gasteiztik dator Bronze taldea. Bere lehen lanean stoner-rock eta grungearen ikutua duten kantak aurkitu daitezke, erritmo sendoak eta pasarte melodikoak konbinatuz, betiko rockaren eskemak jarraituz baina puntu berezi eta propioa emanez. Iaz Azkena Rock jaialdian jo zuten.

Zazpi-Iturri eta Intxurrekoen partidak Euskal Herriko Ligan

Erredakzioa

Asteburu honetan Euskal Herriko Ligaren partidakizango dira Amezketan eta Alegian. Bihar, Amezketako Larrunarri frontoan, 16:30ean hasita, Zazpi-Iturrikoek lau partida dituzte: eskuz banaka gazteetan Bermeoren aurka, kadeteetan eskuz banaka Amorebietaren aurka eta eskuz banaka Lagun Onaken aurka, eta

eskuz binaka 22 urte azpikoetan Errekaren aurka.

Alegian, bihar ere, jubenil mailan Intxurre eta Bergara ariko dira Euskal Herrikoan, 16:00etan hasiko den jaialdian. Aurretik, jaialdian Errendimenduko txapelketako bi partida jokatuko dira: alebin mailan Intxurre 2 eta Intxurre 3 ariko dira eta infantil mailan Intxurre 2 eta Aurrera Saiaz.

→ Laburrak

'Cyrus' eta 'Tron: the legacy' filmak asteburuan

VILLABONA > Gurea aretoan bi film ikusi ahaliko dira asteburuan. *Cyrus* larunbatean 19:30ean eta 22:15ean, igandean 19:30ean eta astelehenean 21:30ean emango dute. *Tron: the legacy* filma igandean 16:30ean emango dute.

Gernikako Akordioaren sinaketa berria igandean

AMEZKETA > Herriko alderdi politikoei eta sindikatuak Gernikako Akordioa sinatu zuten. Amezketako beste hamaika eragilek bat egin dute eta sinaketa ekitaldia igandean izango da, hilak 16, 12:30ean plazan. Txalapartarien eta bertsolarien saioak izango dira ekitaldian. Eragileek herritar guztiei gonbidapena luzatu die ekitaldira azaltzeko.

ITZULPEN ZERBITZUAK

lurre auzoa 20-21, Tolosa
www.itzulnet.net

AZKARTASUNA ETA KALITATEA

HIZKUNTZA KONBINAZIO UGARIA ETA PREZIO LEHIAKORRAK

BEHERAPENAK BOLUMEN ETA MAIZTASUNARENGATIK

HACKDESISTEM#

50 M-KO ZUNTZA**INTERNETEN BIZI DIRENEK
EUSKALTEL GOMENDATZEN DUTE**

Bereziak direla pentsa dezakezu. Edo ameslariak direla. Heldugabeak, edo gogo askekoak. Ez dakite nola programatzen den garbigailu bat, baina satellite baten orbita berriro programatu dezakete. Batzuentzat, ez dira aldatu hamalau urte zituztenetik. Baina guk uste dugu etorkizuna direla. Izan ere, ez dabilta pauso bat aurrerago; **50 mega aurrerago dabilta.**


 Zuntzaren indarra
Deitu 1717ra - www.internetenbizidirenak.com

Ostatuaren kudeaketaren aferak hautsak harrotu ditu

Premiazko Osoko Bilkuran jorratu dute gaia; Ezker Abertzaleak «prebrikazioa» egon dela salatu du

Herri Ostatuaren ustiapenaren esleipena. Honenbestez, epe oso motzean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da iragarria eta izena emateko epea ireki.

Leaburu-Txaramako Ezker Abertzalearen salaketa

Herenegungo Osoko Bilkurak hautsak harrotu ditu herrian eta Ezker Abertzaleak erabakien inguruan hainbat salaketa egin ditu.

Esti Ezeiza Leaburu-Txarama

Udalak Premiazko Osoko Bilkura egin zuen herenegun eguerdian. Bilkura laburra izan zen, hiru puntuk bakarrik osatzen baitzuten gai-zerrenda. Hauek zerikusizuzena zuten Herriko Ostatuarekin.

Hasteko, aho batez onartu zuten Bide Berriak-eko hiru udal ordezkariak, Batzarraren premiazkotasuna. Ondoren, Leaburuko Udalararena den ostatuaren kudeaketa kontratua arautuko duen administrazio baldintza zehatzen agiriaren proposamena onartu zuten. Azkenik, erabaki zuten, alkatearen esku uztea Leaburuko

Atzo eguerdian egindako agerraldian agertu zuten «udal prebrikazioa egin du». Hasteko argi utzi zuten, «Herriko Ostatua epe luze egian egon dela itxita, herriar gutzien kalterako», eta horregatik, beraien helburua, «hau lehenbailehen irekitzea dela, baina beti ere, legea errespetatuta».

Prozedura «legez kanpokoa» dela salatzea, hainbat argudio aipatu zituzten Ezker Abertzaleko ordezkariak. Izan ere, beraien esanetan, «oinarrien barruan ai-



Leaburu-Txaramako Ezker Abertzaleak agerraldia egin zuen atzo hainbat salaketa egiteko. E. EZEIZA

patzen diren 2.500 euroko hileroko errenta ezartzean eta hamar urterako (bost urte gehiagoz zabaldu daiteke) izatean esleipena, honek udal ordezkarien gehiengo absolutuaren onspena behar du, eta kasu honetan, hiru bakarrik izatean, gehiengo soila besterik ez dute». Bestalde, ebazpen horretan «prebrikazioa» dagoela diote, «abenduarren 10ean egindako bilkuran, idazkariak ohartarazi baitzuten, ostatuaren errentamendu hitzarmenarekin amaitzeko

gehiengo absolutua behar zutelako».

Osoko Bilkura deitzeko modua ere hizpide izan zuten atzo egindako agerraldian: «Egun batetik bestera deitu zuten, ia iragarri ere egin gabe, eta gainera, eguerdian jarri, ahalik eta jende gutxien joateko» adierazi zuten.

Honez gain, «beste behin ere» Mari Kruz Ugalde alkatearen eta Jose Martin Deusto zinegotziaren «dimisioak» eskatu zituzten. Izan ere, Ezker Abertzaleko kideen

esanetan, «azken honek, abenduaren 10eko Osoko Bilkuran modu itsusian erantzun zion idazkariari, honek esan zuenean, hitzarmena egiteko gehiengo absolutua behar zutela». Gogorarazi zuten ere, Jose Martin Deusto «inputatua» dagoela «idazkariari iraintzeagatik eta lan eraso bortitzengatik».

Bestalde, Bide Berriak-eko udal ordezkariak azaldu dutenez, gai honen inguruan hurrengo egunetan hitz egingo dute.

Animaliak protagonista San Anton egunean

Astehenean, animaliak izango dira protagonista Berastegin, San Anton egunean

Erredakzioa Berastegi

Urtero bezala, aurten ere animaliak protagonista izango dira Berastegin, San Anton egunean. Santuaren eguna ospatuko dute Berastegiko herritarrek, eta baita

hauek eramaten dituzten animaliek ere.

San Anton eguna hilaren 17an, astehenean ospatuko dute urtero lege. Herritarrek 10:00etan Berastegiko San Anton ermitan izango dute meza. Ondoren, San Anton animalien patroiz izanik herritarrek emandako animaliek bedeinkapena jasoko dute, hauek ere urte ona izan dezaten.

Hau ez da berastegiarrek ospatuko duten santuaren egun bakarrra, izan ere, hilaren 20an San Sebastian eguna ere ospatuko dute.

Euskadiko Sokatira Txapelketako lehen saioa asteburuan

Euskadiko Sokatira Txapelketako lehen saioan izango dira Ibarra gizonetzko eta emakumezkoen taldeak

Erredakzioa Ibarra

Hastear da goma gaineko zortziko Sokatira Txapelketa, eta bertan lehiatuko dira Ibarra tiralarriak. Durangon abiatuko da bihar lehia eta martxoaren 19an amaitu Arrigorriagan. 17:00etan hasiko da Durangoko jaialdia eta bertan, gizonetzkoen 680 kilokoan izango dira jokoak.

Guztira zortzi saiok osatuko dute txapelketa, eta hauek larunbatetan izango dira. Pisu eta sexua kontuan hartuta, denera 14 taldek hartuko dute parte: Amaiur (Amiur), Berriozar (Berriozar), Sakana (Arbizu, Lakuntza...), Txantre (Iruñea), Basaburua-Imotz (Basaburua eta Imotz), Ñapurak (Ezpeleta), Sokarri (Arrigorriaga), Ibarra, Badaioz (Gasteiz), 6 Coneyos (Asturias).

Honenbestez, ia zoko txapelketa-ekin alderatuta Auzolan (Astigarraga) eta Barrundia (Araba) izango dira hutsune nagusiak gizonetzkoetan. Emakumezkoetan berriz, Beti Gazte (Lesaka) falta da. Bestalde, berriro ikusi ahal izango dira 6 Conceyos, Txantrea, Indarka eta Basaburua-Imotz ariko da.

Gizonetzkoen eta emakumezkoen lehen saioa

Gizonetzkoen 680 kiloko saioari dagokionez, jardunaldi bakarra jokatuko denez, larunbatean lehen txapela izango dute lehiari jardungo duten taldeak. Saioa ligaxka sistemarekin jokatuko da, eta taldeen arteko berdinketak baleude, ligaxka jokatuko ostean kitarrakoak jokatuko litateke. Ibarra gizonetzkoen taldea ere bertan izango da. Emakumezkoak lehen saioan 540 kiloko lehiari jokatuko dira. Hiru jardunalditako liga jokatuko dute, eta hiru lehiatuko direnez, jardunaldi bakoitzari bi itzulira jokatuko da eta bietan puntuatuko da. Ibarra emakumeek osatzen dute txapelketan parte hartuko duen taldeetako bat.

↓ Euskadiko Sokatira Txapelketa

EGUTEGIA

- **Urtarrilak 15.** Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. 680 kiloko gizonetzkoak eta 540 kiloko emakumezkoak.
- **Urtarrilak 22.** Ezpeletako Merkatu plazako kirol gelan. 640 kiloko gizonetzkoak.
- **Urtarrilak 29.** Ibarra. 640 kiloko gizonetzkoak eta 540 kiloko emakumezkoak.
- **Otsailak 5.** Zeberion. 640 kiloko gizonetzkoak eta 540 kiloko emakumezkoak.
- **Otsailak 19.** Baionako Polo Beyrisen. 600 kiloko gizonetzkoak.
- **Martxoak 5.** Nafarroa Garaian. 600 kiloko gizonetzkoak eta 500 kiloko emakumezkoak.
- **Martxoak 12.** Gernikan. 600 kiloko gizonetzkoak eta 500 kiloko emakumezkoak.
- **Martxoak 19.** Arrigorriagan. 560 kiloko gizonetzkoak eta 500 kiloko emakumezkoak.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818. tolosa@irragarri.net
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko ideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

MENDI IRTEERAK

- **Leitza.** Mendibil mendi elkar-teak Leitzaarreara joateko txangoa antolatuta du biharko. Ibilbidea bizikletaz egingo dute eta Plazaolaiko geltokitik abiatuko dira 09:30ean.
- **Asteasu.** Sagain mendi taldeak etzi Aiako Harrietara joateko txangoa antolatuta du. Irteera plazaatik izango da 08:00etan.
- **Tolosa.** Oargi mendi elkar-teak etzi Jaizkibel aldera joateko txangoa antolatuta du. Kostako ibilbidea egingo dute. Tolosatik 06:30ean irtengo dira Pasai Donibanera eta Hondarrabian bukatuko dute ibilbidea.
- **Tolosa.** Alpino Uzturre elkar-teak etzi txangoa egingo du. Udana mendatetik hasiko dira eta Antzuolan bukatuko dute. Gorostiaga eta Landarrats mendiak igoko dituzte. Autobusa San Frantzisko pase-alekutik 08:00etan irtengo da.

ERAKUSKETAK

- **Alegia.** Maria Luisa Gorrotxategiren margolanak urtarila bu-kaera arte egongo dira ikusgai Alegiako Jubilatuen tabernan.

DEIALDIAK

- **Ibarra.** Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa gaur 22:00etatik aurrera.
- **Amezketeta.** Gernikako akor-dioa sinatzeko ekitaldia etzi 12:30ean herriko plazan. Sei eragilek sinatu zuten orain gutxi,

eta orain honako taldeen atxiki-mendua jaso dute: Bertso Eskola, Emakume Taldea, Irakurketa Taldea, Pilota Eskola, Zazpi Itturri elkarte, Ugarteko elkar-tea, Buruntzuntzin mendi elkar-tea, paper-fabrikako Aralar el-karte, Gaztea Taldea, Ospela eta Guraso elkarte.

■ **Tolosa.** Bihar festa izango da Info 7 iratiaren alde, Tolosako Trianguloan. Info 7 iratia ezagu-tzera emateko jaia 11:00etatik 13:00etara izango da. Bertan eskualdeko eragile desberdine-ei, ohiko komunikabideetan toki askorik ez dutenei, hitza eman-go dietela agertu dute irratiko arduradunek. Guztia bertan ja-rriko dituzten bozgorailuetatik entzungo da.

■ **Tolosa.** Tolosaldea Goi maila-ko Lanbide Heziketa Institutuan Zenbaki kontrol bidezko tornu programazioa Fagor (40 ordu) eta UBS eta Berogintzarako eguzki indar instalazioen kalku-lua (30 ordu) ikastaroak hasiko dira datorren astelehenean, hi-laren 17an. Ikastaroak langile eta langabetuentzat zuden-duak, doan dira, eta oraindik izena eman daiteke. 943 65 11 47 zenbakira deitu beharko da.

■ **Tolosa.** Minbiziaren Aurkako Elkar-teak Norberaren zainketa prozesu onkologikoetan tailerra antolatuta du hilaren 18rako, 12:00etatik 13:30era. Elkar-tea-ren egoitzan (Emeterio Arrese, 2) izango da doan, eta plaza mugatuak daudenez, 943 65 21 43 zenbakira deitu beharko da.

■ **Tolosa.** Arraun denboraldia-

ren hasiera dela eta, Tolosalde-ko Arraun Klubak aurkezpen ofi-ziala egingo du etzi. 11:00etan izango da. Argazkia egin, eta erakustaldia egingo dute. Den-boraldia hilaren 22an hasiko da Zumaian, eta TAKek 10 taldere-kin hartuko du parte, infatil mu-tilen hiru talde, etorkizuneko emakumezkoen hiru talde, ka-deteen bi talde, jubenil mutilen talde bat eta absolutu emaku-mezkoen bat.

■ **Berastegi.** San Anton Eguna izango da astelehenean. 10:00etan meza izango dute San Anton Ermitan eta ondoren herritarrek eramanda-ko baserri eta etxeetako animali kuttunenak bedeinkapena ja-soko dute.

MUSIKA

- **Tolosa.** Berri Txarraren kont-zertua gaur 22:30ean Bonbe-renean. Sarrerak agortuta.
- **Tolosa.** Atila y los Unosen kontzertua gaur 22:30ean Fron-ton kafetegian.
- **Alegia.** Gaztetxearen urteu-rrenari bukaera emateko Willis Drummond eta Bronze taldeen kontzertua gaur 22:30ean.
- **Tolosa.** Split 77en kontzertua bihar Bonberenean 22:30ean.
- **Zizurkil.** The Zepto taldearen kontzertua Belariz Jan jatetxe-an bihar, 22:00etatik aurrera.
- **Tolosa.** Bad Sound System, EKD (Japonia) eta Dandy DJ Set (Japonia) taldeen kontzertuak etzi, igande, Bonberenean 20:00etatik aurrera.

Agurrak



Zorionak Amets. Bete dezu zure lehenengoa. Musutxuk. Zizurkilgo aiton-amonak.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...
agurrak

agurrak

Mesedez,
ekarri
argazkia
bi egun
lehenago.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. Tel.: 943 67 36 49.
- **Leitza.** Plaza, M. T. Elbahren, 36. Tel.: 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Bronte, C. I. Korreo Kalea, 20. Tel.: 943 67 60 13.
- **Leitza.** Plaza, M. T. Elbahren, 36. Tel.: 112.

ETZI

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. Tel.: 943 67 24 38.
- **Leitza.** Plaza, M. T. Elbahren, 36. Tel.: 112.

ASTELEHENA

- **Tolosa.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. Tel.: 943 67 09 15.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Tel.: 112.
- **Iruztzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Tel.: 112

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**BERRIA taldeak
zure laguntza behar du**

HITZAK inoiz baino irakurle gehiago ditu, baina inoiz baino baliabide ekonomiko gutxiago. Interneten eta paperean, gure komunikazio proiektuak berritu eta indartu ditugu udazkenean. Apustu hau aurrera ateratzea da, zuekin batera, gure erronka.

Ekarpena egiteko bideak
50 € • 100 € • edo nahi duzun kopuruarekin



- **Transferentzia Euskadiko Kutxan:**
3035 0060 48 0600113162
(izen-abizenak zehaztu)
- **Kreditu txartelaren bidez:**
zuzaraberria.info webgunean

*Bihar ere euskaraz
bizitzeko tresnak
izan ditzagun!*